MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2010eko apirila 94. zenb.

KALAPUTXI

>Pello Ulaziarekin, Paisaiaren eraikuntza
>Burumendirekin mendi hegaletan gora
>EGUNKARIA absolbitua
>Guraize fabrikaren egoera
>Mutrikuko eskolaren sorrera (4)

THE WET BAND

musikaz blai

1- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
2- Masajeak :
- Estetikoa
- Terapeutikoa
3- Drenaje linfatikoa
4- Depilazioak :
- Beroa
- Hotza
- Elektrikoa
- Laserra
5- Pedikura - Manikura
6- Makilajeak
7- Mikropigmentazioa
8- Dietista

Estetika eta Terapia Institutoa
Fisioterapeuta tituluduna

EGIN EZAZU APROBA

GALILEO FITNESS
ariketa eta terapia
NOBEDADEA!

Beheko Plaza, 5
Tel.: 943 60 42 29
20830 Mutriku

Elgoibarko IMH

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

ingeniaritza imh

Ate irekiak 2010 urtea

APIRILAK 24, goizeko 11:00etan
Heziketa Zikloak eta Txandakako Ingeniaritza

MAIATZAK 29, goizeko 11:00etan
Heziketa Zikloak eta Txandakako Ingeniaritza

IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 imh@imh.es - www.imh.es

Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 603468 / 635 748 393
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko Udala
Tirada: 2.200 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Kalaputxik eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

Mutrikuko Udaleko Kultura eta Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutakoa

aurkibidia

Informaziua 4
Zeuk esan *Irakurleen eskutitzak* 5-6
Puri-purixan *Lan munduan lekua eginez* 8-9
Bi hitzetan eta komikixa 10-11-12
Bertsuak *2005eko txapelduna* 13
Karenka *The Wet Band musika taldekoekin hizketan* 14-15
EGUNKARIA LIBRE *Absoluzioa* 16-17
Kirola *Burumendirekin mendi hegaletan gora* 18-19
Kulturia *Pello Ulazia, Paisaiaren eraikuntza* 20-21
Historixa *Mutrikuko eskolaren sorrera (4)* 22-23
Zorion agurrak 24
Argazki zaharrak 25
Agendia *apirila eta maiatza* 26

IRITZIXA

ZIKINTZEN EZ DIREN UMEAK

Lankide ugarik ume txiki eta gazteak dituzte eta jantokian, normala den bezala, ohiko gaiak izaten dira haurren arazoak, okurrentziak, galderak, gaixotasunak, eskaerak, xelebrekeriak… Urtebetetzerako XBox bat oparitu behar diotela zazpi urteko ume bati eta ez dakitela gazteegia ez ote den, autoa tailerrera eraman behar izan dutela aurreko eserlekuen atzealdean bi telebista pantaila ipintzeko umeekin bidaiatzen dutenean hauek nahi dituzten marrazki bizidunak edo pelikulak ikus ditzaten, bestela, ez direlako isiltzen bidaia osoan; bederatzi urteko alabari soldata baten erdia beste balio duen mugikorra erosi behar diotela, gurpilak dituzten kirola egiteko zapatilak erosi dizkiotela oso alferra den beste bati.

Erosotasunaren gizartean bizi garela onartu beharra dago, eta ia guztiok gaude dinamika horretan sartuta, baina gure eguneroko bizitzan badaude galtzen ari garen ohitura edo jokabide txiki eta garrantzitsuak. "Gure umeei, txiki-txikitatik, dena eginda ematen diegu, irudimena lantzeko dinamika eta jarduera pila bat lantzen dituzte ikastolan eta, batzuetan, horrekin nahikoa dela uste dugu" defendatzen zuen orain dela gutxi nire lankide batek jantokian. Ikastolatik atera eta, non eta nola zikintzen dira umeak? Taberna kanpoan, plazan? Txokolatearekin, goxoki edo izozkien azukrearekin? Gu bai zikintzen ginela: mendiko lokatzarekin, txorixo bokadiloaren grasarekin, klarionekin, argizarizko margoekin, lurrean bueltaka ibili eta gero belarraren berdea gorputz osoan geneukanean... Orain umeak ez dira horrela zikintzen, eta hori ez da sanoa" esaten zigun.

Asteburuetan inguruko mendi edo hondartzetara pasiaran hurbilduz gero, oso ume gutxi ikusten dira bertan, txandala jarri eta gurasoekin jolasean, oinez, bizikletan, naturarekin harremanetan, korrika, harriak edo loreak biltzen, lurrean bueltaka, basa tartean jolasten, baloiarekin, soka saltoan… Erosoagoa da parke, taberna edo plazan esertzea, eta umeak inguruan izatea, jolasean, hori bai, makinatxoarekin edo, onenean, patinekin. Hobe zikintzen ez badira, erosoagoa da.

Inguruko zenbat umek ez dute DVDa kotxean? Nahikoa ipuin eta abesti al dituzte ikastolan? Kotxean hobe telebista ikusi eta isil isilik badoaz, erosoagoa da. Nork ez ditu gogoratzen txikitan gurasoekin autoan egindako bidaia-abenturak? Kotxeen kolore eta matrikulekin egiten genituen jolasak, tuneletan asmatzen genituen abenturak, hitz enkadenatuen sesio amaiezinak… Ez genuen DVDrik, ezta beharrik ere.

Egunerokotasunean guretzat erosoagoak diren bideak hartzen ditugu, eta, agian nahi gabe, gure txikiei ere bide bera erakusten ari garela uste dut. Hori bai, hasten direnean, umeei ekintzaileak izatea eskatuko diegu, gure gizartean arrakasta izateko hori baita bete beharreko baldintza garrantzitsuenetariko bat: ekintzaileak izatea, proaktiboak, irudimentsuak, originalak, ohitura osasuntsudunak, ondo hitz egiten jakin beharko dute… Agian orduan galdetuko diogu geure buruari zikintzen ez diren umeak hasi izana benetan merezi izan duen.

Mireya Alvarez

intereseko telefonoak

OSASUNA

Anbulatorioa (Osakidetza).....943 60 43 00
DYA zentrala.....943 46 46 22
Mendaroko ospitala.....943 03 28 00
Odol emaleen taldea.....943 60 39 30
Javier Otxagabia botika.....943 19 50 26
Lon Apraiz botika.....943 60 32 50
Larrialdiak 943 46 11 11

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua.....943 60 70 48
.....679 16 25 00
Udaletxea.....943 60 32 44
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Itsas etxea.....943 60 34 00
Ur patzuergoa.....902 30 22 22
Mankomunitatea (trasteak eta zaborrak)
.....943 70 07 99
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua..943 60 34 18

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola.....943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola.....943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua.....943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza 943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza.....943 60 38 71

ZERBITZUAK

Pesa.....902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua.....905 50 50 05
Hondarribiako aireportua 943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia.....943 60 41 82
Kiroldegia 943 60 31 75
Gasolindegia 943 60 32 10
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik	Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
	Zapatuak	10:00 / 16:30
	Jai egunak	10:00 / 19:30
Donostiatik	Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
	Zapatuak	11:30 / 19:30
	Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:

> **6:10**ean hasi eta 20:10 arte, orduro. > **6:40**ean hasi eta 19:40 arte, orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

DEBARA eta Debabarreneko herrietara

Astegunetan: **7:15**etik 21:15era orduro / **Jai egunetan**: **8:15**etik 21:15era

ONDARROARA

Astegunetan: **6:55**etik 20:55era, orduro / **Jai egunetan**: **7:55**etik 20:55era

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA		DEBA – BILBO – DEBA	
Debatik	6:44-7:44-…-21:44	**Debatik**	6:43 -7:43 -…-20:43
Donostiatik	5:47-6:47-…-20:47	**Bilbotik**	6:00 -7:00 -…-20:00
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira		Jai egunetan 8:43etan hasiko dira	

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik	6:43 / 7:43 / … / 21:43	Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik	6:13 / 7:13 / … / 21:13	Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako botikak (Mutriku eta Deba)

APIRILA

23tik 25era	**Hiart Burgoa (zapatu goizean, Lon Apraiz)**
26tik 29ra	**Javier Otxagabia**
30ean	**Lon Apraiz**

MAIATZA

1ean eta 2an	**Lon Apraiz**
3tik 6ra	**Hiart Burgoa**
7tik 9ra	**Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Javier Otxagabia)**
10etik 13ra	**Lon Apraiz**
14tik 16ra	**Javier Otxagabia**
17tik 20ra	**Amaia Zalduegi**
21etik 23ra	**Hiart Burgoa (zapatu goizean, Lon Apraiz)**

APRAIZ.....630 05 50 97 ZALDUEGI.....669 26 22 01
OTXAGABIA..689 58 57 59 BURGOA..... 667 33 88 90

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4. behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarminaeraiketak.com
www.sagarminaeraiketak.com

gutunak

BADAGO ZER EGINIK

Azken denboraldi luzean, Mutrikuren beherakadaren sentsazio egoera gero eta nabarmenagoa da. Ia sektore ekonomiko guztiak behea jota daude, eta enpresak, arrantza, baserria, merkataritza, ostalaritza…, lehengoaz gain, gaur egungo krisiarekin, okerrago daude.

Egoera horrela izanik, etsipena ere zabalduz doa gure herrian, "hemen ez dago zer eginik" moduko esanak gero eta gehiago zein ozenago entzuten direlarik.

Ba… begira, honen aurrean, pentsaera ezberdineko mutrikuar batzuk uste dugu ezin garela etsipenaren uretan ito… eta kito! Hori baino gehiago zor diogu geure buruari, historiari eta etorkizunari.

Ideia honen inguruan, zerbait egin nahian, hainbat pertsona batu gara eta Mutriku bultzatuz izeneko ekimena sustatzeko asmotan gabiltza. Beste herrietako esperientziak jaso, hainbat eragileren asmoak ezagutu, eta zera adierazi ,oraindik orain, sasoiz gabiltzala herri hau aurrera begira jartzeko. Guztion artean.

Bost mahai inguru prestatzekotan gabiltza eta Nekazaritza, Akuakultura, Itsasertzaren garapena, Merkataritza eta Ostalaritza… esparruen inguruko gaiak jorratuko dira. Seguruena, maiatzaren lehen hamabostaldian izango dira guztiak, baina aurrerago azalduko dugu zein egunetan izango diren.

Helburua, etsipenari STOP! egin eta geure indarretan sinistea izango da. Gure aldetik hauxe baino ez, ahalegindu zaitezte-la parte hartzen mahai inguruotan eta bertan sortuko diren hausnarketa eta eztabaidetan.

***Mutriku Bultzatuz* ekimena**

SATURRARAN ESKASTASUNIAN

"Gauza bat ondo egiteko, lehengo horretan sinistu beharko litzateke"

Gure Saturraran, Satur eta Aran, Andren Kartzela, kondian finka, nudistak, Gipuzkoako hondartza politenetakoa… Baina dena edukita, dena falta.

Udaletxeko Ezker abertzalearen garaian, bialdu zen "Plan integral de Saturraran" *Costas*era eta beste administrazioetara, eta nola akats garrantzitsu batzuk zeuzkan, kongeladorean sartu zuten eta hantxe dago. Orain, Eskuin abertzaleak aparkalekua kobratzeko -dirurik irabazi gabe- ipini eta guzti egin du.

Baina errealitatea da Saturraran hankaz gora dagoela, eta gaurko aitzakiarekin -dirurik ez dago-, ba, lehen borondate txikia bazegoen orain ia-ia galdu egin da.

Zer egin behar da?

- Lehengo Mijoako ibaiko bokaleko dikea kendu eta magal hori naturalizatu, dike madarikatu horrek, hondarra galdu eragin besterik ez duelako egiten, eta bere funtsezko lana aspadi laga zuelako. Eta ibaia garbitzen bada eta zubiak eta kartzela zegoen tokia txukuntzen bada, hobeto.
- Nola ez, aparkalekua legalizatu eta zuhaitzak eta estetika moldatu, eta ahal bada, ez kobratu, ez laga karabanak desmadratzen, eta txakurrentzako toki bat ipini.
- Hondarraren tokia errespetatu, dinamika naturala apurtu gabe, Kondearen alboan dagoen duna errekuperatu eta babestu, eta instalazio elektrikoak eta urarena berriztu eta txukundu.
- Kantinak, alegalak diranez, bota eta atzerago berriak egin eta pentsatu gehiago umeekin eta beren beharrekin parkeko tramankuluak txukunduz.
- Kondeari kondearena eta herriari herriarena, hau da, eskatu –legea alde dugu– bere etxe aurrea irekitzeko. Udalak egiten ez badu, herritar batzuek egingo dugu. Garaia da Kondearen menpetik irteteko, eta, nola ez, ahal bada, Saturran Zahar ere herriarentzat lortu.
- Emisario berria tentuz eta errespeto guztiarekin kokatu, baina hau ere lege barruan egin.

- Nudistak ere errespeto haundienarekin tratatu eta lagundu.

Luzatzea denbora galtze bat da goiko zerrenda ez bada betetzen, Saturraran Mutriku bezala dago, kilin-kolon. Ea denon artean pixkat geixo egiten dugun egoera hau aldatzeko.

Guk ikusi eta ikasi dugu, Saturraranek merezi du lanak, Mutriku bezala, bakarrik falta da sinestea. Guk sinesten dugu; besteek, noizko?

Berdeak+independenteak

.....hurrengo orrian gehiago -->>>>

PENTSAKERA ESKUBURDINEZ LOTU NAHI

Terrorismoaren gorespena. Horixe izan zen apirilaren hamaseiko goiko plazako betiko enkarteladako hiru kideri leporatu zietena. Eleizako eskaileretan bake santuan elkartu, inori kalterik sortu ez, beraien mezua agertzen zuen pankartaren atzean geldik eta zutik egon. Horixe pekatu.

Dozenaka lagun elkartuta, hiru laguni eskatu omen zieten identifikatzeko eta aldean agiririk ez zutenez, eskuburdinak erabiliz atxilotu zituzten. Bat ere oztoporik ez zuten jarri hiru lagunek. Iñigo, Xabala eta Kalamax. Kotxean sartu eta, delinkuenteak izan balira moduan, han eraman zituzten. Bat, bi, hiru kotxe patruila, furgoneta bat, eta patrol berri horietako bat. Gero, manifestazioa herriko kaleetan. Zertara etorri ziren?

Gizartean aniztasunaren balio onak zabaltzen ari gara, ideologia, erlijio zein kultura ezberdinak nahasten direnean sortzen den amalgamak gizarteari eta, ondorioz, gizabanakoari onurak eta onurak dakarzkiola frogatzen ari gara, behin eta berriz, gure eguneroko bizitzan. Zergatik, orduan, gure lagun hurkoaren iritzia gaitzetsi, ezberdin pentsatzea txartzat hartu, zergatik pentsakerak eskuburdinez lotu...?

Egunkaria auziaren lehenengo epaiaren ondoren adierazpen handiak entzun ditugu adierazpen askatasunaren defentsan, eta jarraian, berriz ere pentsakera eskuburdinez lotzen hasi.

Helduko al da hitzen bitartez argudiatu eta kontra-argudiatzeko garaia. Eta horretan, denok dugu erantzukizuna. Bi pausu atzera egin eta distantzia eroso horretan bizi garenok ere bai. Amaitu da "zeozer egingo zuen" esateko garaia. Ea galdezka hasten garen "zer egin du, ba, eramateko modukoa?".

Bitartean, hiru lagun mutrikuarrek isuna jasoko dute, eta, okerragoa, goragoko instantzietarako deia ere bai beharbada.

Horixe bakarrik behar genuen! Eleizako eskaileretan isiltasunean presoei elkartasuna adierazten hasi eta...

Joseba

HONDARTZA BERRIA EGITEKO PROPOSAMENA

Hasi aurretik argi laga nahi dugu guk ez dugula zerikusirik inolako talde politiko edo interes partikularrekin. Esan behar dugu orain arte egindakoak eginda daudela, horrek ez daukala atzera bueltarik —babes dikeari buruz ari gara, jakina— eta alferrikako eztabaida eta haserreak alde batera utzi, eta hemendik aurrerakoetan zentratu behar ditugula gure indar guztiak. Ekin diezaiogun, bada, ahal denik eta etekinik handiena ateratzeari orain daukagunari.

Gure proposamena orain dagoena hobetzea da, hondartza berri dezente bat gelditzeko. Momentu honetan, marea bajatzen denean, haitz hutsa gelditzen da, hondarra eta haitza. Gure ideia hau ez da orijinala, konprobatuta dago-eta —lehendik daukagun igerilekuarekin— itsasgorari horma edo tope bat ipintzeak ondo funtzionatzen duela, beraz, aplika dezagun metodo horixe bera behar den bezalako hondartza bat izateko.

Proiektu ofizialak ere planteatzen du igerileku berri bat, baina, gure ustez, oso motz gelditzen da asmo hori egin litekeenarekin konparatzen badugu. Anbizio txikiko ideia iruditzen zaigu hori. Zergatik konformatu igerileku txiki horrekin hondartza dezente bat eduki badezakegu? Itsasgorak eta beherak eragingo ez dion hondartza eder bat, alegia.

Dirudienez, Ley de Costas izeneko horrek ez omen du hondartzarik ixten lagatzen, ezin omen zaio hondartzari traba edo oztoporik jarri. Baina Mutrikuko hondartzak momentu honetan, itsasbeheran, traba guztiak dauzka, zeren marea behean ez baita urik gelditzen, haitz hutsak baino ez. Zer hondartza mota da hori itsasberan urik gabe gelditzen dena?

Guk esaten duguna zera da: itsasbeheran bistan gelditzen den haitz-tope hori metro eta erdi edo bi metro altxatzea, urari eutsi diezaion. Horrela, itsasgoran ura berrituko litzateke eta itsasbeheran, berriz, urari eutsi egingo lioke, eta sekulako hondartza izango genuke guztiontzat; batez ere, haur eta adineko jendearentzat. Denok disfrutatuko genuke.

Horretaz aparte, oraingo paseoa luzatu ahal izango litzateke hondartzaren hegalean zehar bigarren hondartzaraino, edo, bueno, hori diruaren arabera. Baina, jakina, ez dago dena batera egin beharrik. Eta igerilua egitea proposatzen duten lekuan, berriz, zabalune eder bat egin liteke, kantina, jolas-leku, eguzkia hartzeko gune eta abarrekin. Dena dela, hondartzari topea jartzeak ez du esan nahi proiektu ofizialean proposatzen duten igerilekua egin ezin denik, bi gauza desberdin dira-eta.

Gure ustez, mutrikuar guztiak egongo lirateke asmo horren alde, eta, koste aldetik, ez luke aparteko kosterik izango, zeren paretaren anklajea bertan baitago, haitzak bertan daude. Hori ikusteko, konturatu besterik ez dato itsabeheran.

Horixe da dagokienen mahai gainean jarri nahi dugun ideia, eta behar bezala aztertu eta herriaren eta herritarron alde egin dezatela eskatu nahi diegu.

Herriko lagun talde bat

artizar

fisio lan taldea

San Agustin, 10 behea MUTRIKU

943 603 655

masajeak baino askoz ere gehiago

GURAIZE FABRIKA

laino beltzak ostertzean

Ez da erraza krisi egoera hau. Banan-banan ikusten ditugu nola bideratzen diren zenbait herritar langabeziara, bakoitzak bere kezken zakua bizkarrean hartuta. Banaka izan ordez, multzoka direnean, gehiago aztoratzen gara. Oraingoan, gure herrian urteak daramatzan guraize fabrikako berrogeita hemezortzi langile dira egunero galdera ikurren kolpez iratzarri, eta, zalantzati, Samikolla aldera burumakur abiatzen direnak: batzuetan lana egiten dute eta beste batzuetan ez; hurrengoan, eliza aurreko eskaileretan daude pankarta aurrean dutela, edo kalean zehar euren mezuak oihukatuz. Larria dute egoera. Langileen ordezkariengana hurbildu gara arazoaren berri eman diezaguten.

Munduan zehar zabaldu den krisia al da egoera honetara bultzatu zaituztena?
Ezin dugu zeharo ukatu hori ez denik, baina gure egoera krisi honen aurretik zetorren bideratzen. Historia luzea da gurea.

Kontatuko al diguzue zuen enpresaren nondik norakoak?
Hasierakoak ez genituen ezagutu. Badakigu, bi mutrikuar, Imanol Beristain "*Piker*" eta Juanito Egurbide "*Trentxiki*" izan zirela enpresa gaurko lekuan eraiki zutenak, eta guraizeak bakarrik egiten zituztela. Horregatik ezagutzen da Mutrikun gure enpresa *guraize fabrika* bezala. Ondoren, 1967an, Alemaniako hegoaldean Frantzia eta Italiatik hurbil dagoen Tuttlingen herrian kokatuta dagoen *Aesculap* enpresak bere ekoizpena munduan zehar zabaltzea erabakitzen zuen, eta Mutriku izan zen aukeratutako lehen herria. Enpresa erosi zuen, eta, guraizeaz gain, kirurgiako instrumentala ekoizten hasi ginen, mekanizazioa eta tratamendu termikoa gehituz. Guztira, 350 pieza mota ditugu gaur. Orain bost urte, 2005 urtean, *Aesculap*ek utzi, eta enpresa berri bat sortu zen *Metec Motric S.A.* izenarekin.

Zerk bultzatu zuen egoera berri honetara?
Esan dezagun 1967an hasitako enpresa hura, gora-beherekin, baina egoera normalizatu baten bizi izan zela. Igarotako mendearen bukaeran, orduko gerentearen kudeaketa medio, garapen garrantzitsua izan zuen: mekanizatzeko erabiltzen genituen fresatzaile makinak alboratu, eta, horien lana egiteko, kontrol numerikoko hiru makina ekarri zituen; eskulana, zati handi baten, erositako ontzi-bibragailuen erabilerak murriztu zuen, eta robot bat erostera iritsi zen pulimentu lan batzuk egiteko asmoarekin. Baina bide hura hurrengo etorri zen gerenteak eten zuen, eten baino, atzerabidean jarri. 2002 urtean etorri, eta bi urte eta gutxiko denboran 800.000 euroko zorrak egin zituen. Nagusikeria handiko pertsona hark ez zuen ahalbideratzen talde-lana, beti berea zegoen gainetik, eta… ondorioak halakoak: 2004 urteko udaberrian salgai jarri zuen enpresa *Aesculap*ek. Sekula ez dugu jakingo egoera hartara gerentearen eraginak bultzatu zuen, ala hura hartarako jarria izan zen.

***Metec Motric*-en ordua?**
Ez. Salgai jarri zenean, hemengo *Grupo Alfa* interesatu zen lehendabizi. Bere asmoa ez zen izan enpresarekin jarraitzea, baizik eta, erosi ondoren, langileen %10 kalean utzi eta besteak bere enpresetan birkokatzea, eta lur-sailak etxe eraikuntzarako erabili. Langileok ez genuen sartu nahi izan joko horretan.

Hurrengo pausoa, egun haietan gerentzia lanetan ziharduen Volkerrek eman zuen. Berak erosiko zuen enpresa, guk soldataren murrizketa bat onartzen bagenuen. Aurkeztu zigun Plan Industriala aztertu ondoren, pieza berriak, automatizazioa, eta robotizatzea ikusita, adostasunera iritsi ginen. Enpresa erosi eta berehala, izugarri igo zen lan-poltsa *Aesculap*ekin sinatu zuen kontratua zela-eta. Hamabost langile berri hartu behar izan zituen ekoizpena ateratzeko. Baina bost urteko kontratua aurrerantz, eta agertu zigun Plan Industriala geldik, bere hitzetan, likidezia ezagatik; *Aesculap*ek urtero ezartzen zituen prezio beherapenak xurgatu zuen guk gure soldata jaitsierarekin lortutakoa. Likidezia horren bila planteatu zuen lurren salmenta, eta *Kakatza* inguruan enpresa berria eraikitzea.

Zeintzuk izan dira bide horretan emandako pausuak?
Dirudienez, guk ez baitugu parte hartu, enpresak bere aholkularitzaren bidez bi arlotan jokatu du: batetik, lur eremuaren kalifikazioa aldatu nahian, izaera industriala izatetik izaerab urbanoa edo etxeak eraikitzeko aukera izatera, eta, bestetik, enpresa berriaren eraikitzea eta antolakuntza aztertzen.

MUTRIK
aholkularitza
Komunitateen administrazioa, aseguroak,...
Arreta pertsonala eta prezio konpetitiboak
mutrik2010@hotmail.com · Tel.: 620 28 39 16

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Guk, langileok, 2.800 metro karratu zituen planta baten ekoizpen-planaren kokapen fisikoan hartu dugu parte. Atsegina izan da guretzat ikustea nola gaurko lantegiko bi solairuek ematen dizkiguten zailtasunak, hainbeste atzera-aurrera eta gora-beherekin, arintasunez gainditu eta makina gehiagorekin egitea planteatzen zen. Departamendu berri bat ere kontenplatzen zen; bertan joango zen *Metec Innove* izango zen enpresa berriaren kokapena. Enpresa hori atzerrian piezak erosi eta hemen saltzera dedikatuko zen bere zigilua ezarri ondoren. Dirudienez, bazegoen asmoa pieza berriak egiteko ere, baina zailtasunak izan zituzten homologazioak lortzeko.

Lur-sailen arloan ez daukagu guk nahiko genukeen beste informazio, beraz, kontatuko ditugunak entzundakoen eta pentsatzen dugunen nahasketa bat izango da.

Badirudi aurre akordio bat izan zutela, gure ustetan arazoa konponduko zuen 3.700 milioi eurokoa, baina, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, 2009ko otsailera arte ez zuten aurkeztu udaletxean Mutrikuko Udalak eskatzen zien dokumentazioa, eta hurrengo epeak legeak ezarritakoak direnez, krisiak harrapatu zituen akordioa gauzatu baino lehen, eta ezerezean gelditu. Hurrengo eskaintza 2.500 eurotara jaitsi omen da. Eta, hor gaude: Wolker Alemanian dabil, eta Pablo jarri du hemen ordezko.

Zein da zuen gaurko egoera?
Ordainketa-etendura aurkeztu zutenez, hemen gaude abendutik kobratu gabe, EREn sartuta, eta lege-konkurtsalaren eraginpean, ezarritako administratzaileak bere informea prestatu arte. Badirudi maiatzaren lehenengoetan azalduko duela, eta… ikusiko dugu!

Enpresa gauden egoera honetan itxiko balitz, jasoko genukeen kalte-ordaina lan egindako urte bakoitzeko hogei egunekoa izango litzake FOGASAren bidez, urteko berrogeita bost egunekoaren ordez.

Ez al duzue ikusten enpresa aurrera ateratzeko modurik?
Gure ustetan enpresa honetan 40 langilerentzako lana badago. Gure kostuak eta alemaniarrenak antzekoak dira. Kalitate mailan lortua dugu ISO 9001. Hobekuntzan ere ez gara atzera gelditzen, izan ere, guk egindako hobekuntzak kopiatu, eta beste lekuetan ezarri dituzte. *Aesculap* da kakoaren jabe. Bere eskuetan dauka forja, bere eskuetan marka, eta bere eskuetan borondate… eza. Ez du nahi. Instituzioetan utzita dugu geure geroa. Udaleko eta beste instituzioetako ordezkariak ahaleginak egiten ari dira Alemanian bileraren bat lortzeko asmoz, baina azken berriek ez dute pozerako leihorik irekitzen. Ea zerbait lortzen duten…

Ea hurrengo Kalaputxin berri onak ematen ditugun!

> ***Aesculap*** **da kakoaren jabe. Bere eskuetan dauzka forja, marka...**

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

Harpidedun egin eta
hitza etxean jasotzeko
deitu telefono honetara:
902 82 02 01

LABURBIRA: FILM LABURRAK IKUSTEKO AUKERA BIKAINA

Azken urteetan bezala, aurtengoan ere Euskal Herriko zine zuzendariek egindako film laburrak ikusteko aukera paregabea izango dugu mutrikuarrok. Apirilaren 23an, Zabielen, gaueko 22:30etatik aurrera.

Aurtengoan ikusiko diren filmeak eta horiek egin dituzten zuzendariak, honakoak: Ahate pasa (2009, Koldo Almandoz), Zorion hutsa (2008, Estibaliz Ariz, Itziar Faido, Janire Fernandez, Vanessa Martin, Gorka Montiel eta Malen Ulazia), Nora zoaz (2009, Iñigo Sanz), Clarck & Boris (2009, Jose Luis Barredo eta Iñigo Garcia), Odisea etxaldean (2008, Urko Manduit eta Ioseba Salaberri). Horiekin batera, 2009 urtean Topaguneak antolatutako Kameratoia lehiaketan saritu ziren bi film laburrak ere ikusgai izango dira: Nireak dira, eta Neguko hitzak.

Honelako emanaldietan ohizkoa denez, emanaldiaren ondoren ikusleek filmeetako baten zuzendariarekin solasaldia izango dute. ✘

ZUBIAGA PLAZAKO OBRAK AMAITUTA

Zubiaga plazan euri urak gainezka ez egiteko obrak amaitu dira. Horretarako, bertan dauden ura biltzeko hodiak hobetu dituzte. Teknikarien esanetan, aurrez jarritako hoditeriak ondo funtzionatzen zuen, baina ur gehiegi batzen zenean, hodi barnean haizea eratzen zen, eta urak ezin zuen bere bidea egin; ondorioz, gainezka egiten zuen. Egindako lanekin, uholdeei aurre egingo zaiela ziurtatu dute udal teknikariek; inguruko bizilagunak, ordea, mesfidati agertu dira. Obra egin ahal izateko, Udalak estatu espainiarreko diru laguntza izan du. Obrak, guztira, 18.876,62 euroko balio izan ditu. ✘

GORA EGIN DU ASTE SANTUETAKO BISITARI KOPURUAK

2009arekin alderatuta, %40 igo da aste santuan herria bisitatu duen jendearen kopurua. Iaz 242 izan ziren; aurten, berriz, 339. Aste Santua eta Pazko Astea hartu ditu kontuan turismo bulegoak datu horiek emateko. "Izan dugun eguraldia kontuan hartuta, pozik gaude lortutako datuekin" azaldu dute turismo bulegotik. 2009 urtearekin konparatuz, Euskal Autonomia Erkidegotik etorritako bisitariak eta atzerritarrak gutxitu egin dira, estatu mailakoak, berriz, gehitu. Bisitarien kopuru handiena Kataluniatik etorri da (%21). Ondoren, bizkaitarrak (%11) eta nafarrak (%9) izan dira gehiengoa. "Helduak dira gehien etorri direnak; asko bikoteka, baina baita familian ere. Gazteak ere asko etortzen dira". ✘

komikixa — **josu ituarte "pitxame"**

IPUINAK SORTZEN IKASTEKO IKASTAROA

Maiatzerako ipuin tailerrak antolatu ditu Udal Kultura Batzordeak. Tailerrak 16 urtetik gorakoentzat izango dira, eta 20 lagunentzako tokia egongo da bakarrik. Gauzak horrela, izena lehenbailehen ematea gomendatzen dute Udaletik, baina epea, berez, hilaren 30ean bukatuko da. Ixabel Millet adituaren gidaritzapean, ipuinen historia, ezaugarri eta definizioak; euskal ipuin tradizionalak eta bertoko pertsonaiak; eta ipuinak sortzeko teknikak ikasteko aukera izango dute herritarrek. Ikastaroa hiru zapatu goizetan banatuko da: maiatzaren 5, 15, eta 22an, 09:30etik 14:00etara. ✘

MIJOA IIko URBANIZAZIOA ONARTUTA

Udalak SR1-Mijoa II sektorearen lehen exekuzio unitateari dagokion urbanizazio planari behin betiko onespena eman dio. Gauzak horrela, Mijoako industrialdea zabaltzeko lanak hasteko azken tramitea gainditu du Udalak. Hori egin ahal izateko lurzoruen jabetza edukitzea beharrezkoa zuen Udalak. Desjabetza espedienteen bidez lurrok eskuratuta, lanak hastea izango da hurrengo pausua. Enpresa berriak sortuko den gunean jartzea da Udalaren asmoa. Hori egin ahal izateko azterketak egiten ari dira momentuan. Azken erabaki hau apirilaren 8an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, egon litezkeen alegazioentzako epea zabalik gelditu da.

ZUHAITZ EGUNA, NATURARENTZAT ETORKIZUN

Aurten Mutrikuko Zuhaitz Eguna Laranga Auzoan izan da, Olmedo Uranga Zalditegiaren inguruan. Deba ibaian bukatzen den mendi magal hau oso berezia da landaretza aldetik, bertan agertzen den lur motagatik, itsasoaen hurbiltasunari eta jasaten duen orientazioari esker mediterraneoar landaretza nagusi baita bertan.

Zuhaitz eguneko landaketak hiritik kanpo egiteko filosofiari jarraituz, bertako landaretzarekin burutu zen ekitaldia. Aurten landatutako zuhaitzak inguru horretan topatu daitezkeenak dira: ametza, artea, erramua, gurbitza, astigarra, sagarmina, hostazuria, abaritza, txorbeltza eta hesilaharra. Hain zuzen ere inguruko baserri baten izena Sagarmina da, seguraski zuhaizka hori inguru horretan ugaria izan zelako garai batean.

Antolaketan Mutrikuko Natur Taldeak jardun zuen egunaren aurreko eta ondoko lan guztietan (Mutrikuko Udaleko ingurumen batzordearen babesarekin), Burumendi Mendi Elkartearen, Ikastolaren, San Miguelen, Institutuaren eta guraso elkarteen laguntasun ezkergarriarekin. Lanak bukatu ondoren, indarrak berreskuratzeko bokadutxo bat jateko aukera ere izan zen.

Aurtengoan, Laranga auzoaren izenaren jatorria eredu hartuta, bi laranjondo landatu dira, azken urteetan utzi gaituzten Joxean Arkauz eta Juan Mari Bernabe bi lagun handien oroimenez. Horren bitartez, urte luzetan zehar, zuhaitz eguna oraindik ere indarrik hartu gabe zegoenean biek emandako laguntza, jakintza eta animoa eskertu nahi izan zien Natur Taldeak.

Bertaratu ziren guraso eta ume kopuru ederra ikusita, pentsa daiteke etorkizunean naturaren aldeko jarreretan eta errespetuan hazitako gazteak izango ditugula.

Landatutako zuhaitzak:

30 *Quercus ilex, subsp ilex*, artea, encina; 30 *Quercus pyrenaica*, ametza, melojo o marojo; 30 *Quercus suber*, artelatza edo artamurka, alcornoque; 30 *Laurus nobilis*, erramua, laurel; 30 *Arbutus unedo*, gurbitza, madroño; 10 *acer campestre*, astigar arrunta, arce menor; 10 *Malus sylvestris*, sagarmina, manzano silvestre; 10 *Sorbus aria*, hostazuria, Mostajo,;10 *Quercus coccifera*, abaritza, coscoja; 10 *Frangula alnus*, oilakarana edo zumalakarra, arraclan; 10 *Rhamnus alaternus*, txoribeltza edo karraskilloa, aladierno; eta 10 *Rhamnus cathartica*, hesilaharra, espino cerval. ✘

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ESKOLA ARTEKO ANTZERKI JARDUNALDIAK

Mutriku herri antzerkizalea dela esatea ez da gauza berria esatea. Gauza ezaguna dugu hori,urtero ikus baitaitezke gazte asko, gero eta gehiago, taula gainean antzezpen lanetan.

Aurtengoan ere, Eskola arteko antzerki jardunaldien baitan, gure herriko gazteen aurrerapenak ikusteko aukera izango dugu mutrikuarrok.

Maiatzaren 5ean, eguaztenez, eskoletako ikasleentzako emanaldiak izango dira, goizeko hamarretan lehenengo emanaldian eta arratsaldeko ordu bi eta erdietan bigarrenean. Zabielen.

Maiatzaren 7an, barixakuz, gaueko hamarretan, eta 8an, zapatuz, arratsaldeko zazpietan, publiko guztiarentzako emanaldiak izango dira Zabielen bertan, ganbaran.

Taldeak eta lanak, hauexek: Bihurriak taldea (Trenaren zain ikus daitekeen gauza guztiak), Zein gehixo taldea (Aurkezpen egongela), eta Beti aurrera taldea (Goiz bat), Bitxiak taldea (Roboten denda), Maitagarri Iratxoak (Ordenagailu ordenatua) eta Onenak taldea (Modeloak beti dira berdinak). Obra guztiak Marisa Martinezek idatziak, zuzenduak, eta entsegatuak.

Hori meritua Marisarena eta bere inguruan laguntasuna eskaintzen dauzkanena. Aurten, gainera, Berdel aipamen jaso berriak indarberrituta egongo dira! ✘

PRESO ETA IHESLARIEN ESKUBIDEEN ALDEKO CD-A

Elkartasun Kantak deitutako ekimena martxan da eta horretan Debabarreneko zein Debagoieneko herritarrek parte har dezakete.

Helburua ondokoa da: Preso eta iheslarien aldeko elkartasun kantuak biltzea. Herritarrek nahi duten musika eta estiloa erabiliz, formatu txikiko abestiak sortu beharko dituzte. Gehienez hiru lagunek osatutako taldeak izan beharko dira, eta mp3 formatuan bidali beharko dira kantuak (letrak aparteko orri baten jarri behar dira). Parte hartzen duten kantu onenekin CD bat kaleratuko da.

Lanak elkartasunohiua@abantian.info posta elektronikora bidali beharko dira uztailaren 20a baino lehenago. Informazio gehiagorako, www.abantian.info webgunea kontsultatu daiteke. Lanak bidaltzeko azken epea uztailaren 20a da. ✘

Soli Diesel
YANMAR
DOISTU
ITSASOKO MOTORREN ALDAGAIAK eta KONPONKETAK
Nasa Kalea, 5 - 20830 MUTRIKU - Gipuzkoa
Tfnoa.: 943 603872 / Mutikorra: 659 670233 / Faxa: 943 603078

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

OKELAR anaiak bertsopaper sariketa

Aizkorriko maratoia

Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Gorka Azkarate

Berebiziko poza sorrarazi zidan, orain lau urte, Okelar sariketan saridun izan nintzela jakinaraziz Mutriku aldetik jaso nuen deiak. Zumarraga-Urretxuko bertso eskolan txikitan hasia, bat-bateko zenbait saiotan (herrian, gehienak) parte hartu ohi duena urtean zehar han-hemenka, ahaztuxea neukan, ordurako, bertso jarrien atalean sari bat jasotzeak zer-nolako kilimak eragiten dituen sabelean. Izan ere, bat-batean bertsotan aritzeak bere zailtasuna duen modu beretsuan da nekeza, norbera pozik uzteko moduko bertso sorta bat jartzea paperean.

Mendizalea izan naiz betidanik; azkenaldian, mendian oinez ibiltzearekin nahikoa ez eta korrika nabil sarritan, gorputzari sekulako pasarak emanaz, tarteka. Mendi lasterketan mundutxoan lasterketa berezi eta maitaturik bada Euskal Herrian, Zegama-Aizkorri mendi maratoi entzutetsua da hori, zalantzarik gabe. Bertan bizitako sentipenak bertso sorta batean biltzen saiatu nintzen eta jarraian datorrena da, sentipen metaketa hori neurriaren eta errimaren galbahetik pasa eta gero, lortutako emaitza.

Sarreratxo hau amaitzeko, Mutrikuko lagunei eskerrak eman eta nire zorionik beroenak helaraztea baino ez zait falta. Okelar sariketa erreferentzia bilakatu da Euskal Herri mailan eta arrakasta hori mende laurden honetan eginiko lan bikainari zor zaio, beste ezeri baino.

1. Negu gorria izan da aurten
hotza, elurra, trumoia,…
ta arratsalde hits batez neure
buruarentzat pregoia:
"kirol munduan eta mendian
oraindik ez duk jo goia,
ezberdina den zerbait egin zak
apurtu ezak gidoia,
hik aise daukak horretarako
beharrezko den sasoia,
nahiz eta jaso jipoia,
edo musukatu lohia."
Gogoak hankei ipini die
betebehar erraldoia:
udaberrian korrituko dut
Aizkorriko maratoia.

2. Erabakia hartu orduko
gorputza hasi zait dantzan,
ta prestaketa bilakatu da
lehentasuna bizitzan.
Lana amaitu, bidegorrira
egunero otzan-otzan,
zenbat itzuli burutu dudan
ezin dut zehazki esan,
baina sinestu garai honetan
ez direla gutxi izan…
Zaku bat jausten den gisan,
erreta, ohean etzan,
egun askotan errutina hau
nahiz ta ezin dudan jasan,
aurrez sufritu behar da gero
denborak irents ez nazan.

3. Hainbat astetan itxaron dudan
une handia heldu da,
tropel honetan egote hutsak
badauka bere lilura.
Igarotako neke ta penak
etortzen zaizkit burura…
Aurkari askok nahiz eta beha
zorrotzez nauten ingura,
nik gaur neronen buruarekin
soilik izango dut guda.
Tiro ozena zerura,
hartu dut abiadura,
dena iragan bihurtuko da
sei, zazpi, zortzi ordura,
bilakatuko al dut oraingo
irteera hau helmuga?

4. Neure burua ondo kokatu
behar dut ahalik laisterren,
indartsu noa, jarraituko dut
aurreko tropeltxo baten…
"jendea uste nuena baino
bizkorrago doa hemen!"
maldak esango digu ordea
bakoitzak zein maila duen…
hiru Aquarius, laranja erdia,
eta txaloak Otzaurten…
Ordu t´erdian Aratzen,
baina hasi naiz beldurtzen,
hasierako malda hauetan
nahiz ta dotore nabilen,
ez ote naiz ba guztiz erreko
berotzen hasi baino lehen...

5. Dagoeneko lehia honetan
badaramatzat ordu bi,
oharkabean heldu naiz Sancti
Spiritura urduri.
Ametsetako aldapa bortitz
zerura bideko zubi,
bihotz-taupadak bizkortu dira
bidea ezker-eskubi,
burutik nekez joango diren
lagunen mila irudi,
"Aizkorri eta Aitxuri,
bertan zeudek, eta! Mugi!"
izerdi tantek irentsi duten
malko lodi bat isuri,
hegorik ez dut soinean baina
hegan noala dirudi!

6. Harriartea lehenaldi da
gailendu da belardia,
ta zapaldu dut amesten nuen
alfonbra berde garbia.
Mendi erraien negar bailitzan
errekasto jostaria,
garai batean neretzat zena
zapaburu biltegia, (hiltegia?)
orain korrika zeharkatu dut
paradisu orlegia.
Haurtzaroko irudia,
ederra, ederregia,
berbera zara, garai batean
jaso ninduen kabia,
baina nik begi ezberdinekin
behatzen zaitut Urbia.

7. Lasterketako zati handi bat
utzi dut jada atzean,
argi printza bat ikus daiteke
Andraitz gaina igotzean,
Zegama hurbil somatzen baita
haranaren bihotzean…
Ziztadak belaun aldean eta
ziztadak izter ertzean,
gogortasuna ez da samurtu
beherako aldatsean.
Orkatila okertzean,
guztiz ito naiz trantzean,
"eutsi goiari, gutxi falta duk,
berehala haiz etxean!"
Poza ta mina nahasten dira
pauso txiki bakoitzean.

8. Hortzak estutu eta helmuga
lortu arte ez dut etsi,
sailkapeneko nere postua:
ehun eta hogeita zortzi,
hiru ehun pasa irten garenez,
"ondo zegok, ez duk gutxi!"
Sano heldu naiz, hori lortu dut,
erronkak ez nau irentsi,
ta kirol orri pertsonalean
lerro ederrak idatzi.
Aterik ez dut nahi itxi,
eta bide honi eutsi,
gogoz erronka berrien bila
hasiko naiz bihar, etzi,
hurrengo urtean apustu, baietz
aurtengo denbora hautsi!

Ainara Etxearte, ahotsa eta koruak;
Endika Kerejeta, saxo altua, teklatua eta koruak;
Endika Lekube "Wendi", gitarra, ahotsa eta koruak;
Iñigo Gorritxategi, baxua, ahotsa eta koruak;
Aitzol Collazo, bateria eta perkusioa;
Zuekin... **The Wet Band!**

Beren bizkarretan ibilbide luzea ez badute ere, ez dira hasi berriak. Urruti samar geratzen zaizkie Iñigo eta Aitzoli garagean entsegatzen zuten garaiak…

Astero elkartzen ginen zerbait jotzeko eta halako batean Wendirekin bat egin genuen. (Wendi) Bai, lagata neukan dena, eta anplia eta gitarra saltzekotan nenbilen. Orduan Iñigok eta Aitzolek esan zidaten entseguko lokalak ireki zituztela eta aukera genuela bertan aritzeko. Horrek animatu egin ninduen eta aurrera egitea pentsatu nuen. Pare bat bertsio jo genituen hirurok elkarrekin eta aurrera jarraitzea pentsatu genuen. 2007ko urte hasiera zen. Dena dela, esan behar dugu Zubiaran izan zela gure sukaldea, han elkartzen ginen eta hantxe sortu zen gure arteko kimika.

Gustu desberdinak zituztenez estilo desberdinetako bertsioak jorratzen hasi ziren…

Bai, ur askotatik edaten dugula esan dezakegu, hard-rock, blues, soul, rock, punk… bakoitzak geure buruan genituen ideiak taldera eraman ondoren kantuak sortzen hasi ginen. Hiruzpalau kontzertu eman genituen eta pentsatu genuen zerbait berria behar zuela taldeak, ahotsa hain zuzen. Ez genuen argi mutil ahotsa edo neska ahotsa izango zen. (Ainara) Gaztetxean jotzen zuten eta bertara joan nintzen kontzertura eta gustatu zitzaidan entzun nuena. Orduan esan zidaten ea entsegu batera joango nintzen probatzera. Garai hartan azterketetan nintzen eta haiek bukatutakoan egin nuen proba; handik aurrera abiatu nintzen neu ere abentura honetan. Taldean sartu eta berehala kontzertu batzuk jo genituen, horietako bat Su ta Gar taldearekin.

2008ko abuztuan Axularren estudioan bost kanta zituen maketa bat grabatu zuten, kontzertuen zirkuitoan sartzea zuten helburu…

Maketa hura Danbaka musika lehiaketan aurkeztu genuen eta bi sari lortu genituen, publikoaren saria eta lehen saria. Lehen sariak Arrasateko Shot estudioetan diska bat grabatzeko aukera eskaini zigun. Orduan, kanta eta doinu berriak sortzeari ekin genion buru-belarri. Uda entsegu lokalean eman genuen, kantuak ahalik eta ondoen egiten diska grabatzeko. Hartan ginela, Endika Kerejetarekin bat egin eta honek saxoa eta teklatua gehitu zizkion taldeari.

2009ko irailean estudioan sartu eta grabatzeari ekin zioten. Diskak "Waterproof" izena izango zuen eta hamabi kantu bilduko zituen, estilo eta kutsu desberdinekoak. Hamaika kantu ingelesez eta bat euskaraz.

Ingeles munduko musikatik asko edan dugu, eragin handia izan du guregan eta horrek markatu egiten du gure sor-

Oso lan heterogeneoa egin dugula uste dugu

WATERPROOF

men lana. Hizkuntzez gain, estiloak ere kanpokoak dira, lehen esan bezala, musika mota desberdinak entzutea, probatzea eta dastatzea gustatzen zaigu, ez diogu ezeri uko egiten.

Bestalde, kantuen letra gehienak Wendik eginak dira.
Bai Iñigok ere egiten ditu eta Ainarak ere bai. Kantuak sortzeko prozesua ere bakoitzak berea du. Nik (Wendi) lehenengo musika sortzen dut eta ondoren letrak txertatzen dizkiot. Iñigoren modua alderantzizkoa da, lehendabizi letra eta ondoren musika… Dena den, sortutako hori gero taldera eramaten da eta hor orrazten dira kantuak, bakoitzak bere aportazioak egiten dizkio lanari, filtroa taldea da.

Musika lana, serio hartzen duten gazteak ditugu.
Asteburuetan ditugu entseguak, hor ez dugu hutsik egiten. Astean zehar ia denok kanpoan gaude eta ostiralean etortzen gara herrira. Astero, ostiraletan eta larunbatetan elkartzen gara, honetan diziplina handia dugu eta horren emaitzak gero ikusi egiten dira.

Lehiaketa irabazi eta ateak zabalik…
Batzuk ireki dizkigu baina ez guk uste beste. Diska grabatu dugu eta oso pozik gaude horrekin, baina musika kontua nahiko makal dagoela iruditzen zaigu. Mundu honetan lekua egitea ez da batere erraza, baina baikorrak gara.

Diskaren azalak esanahi bereziren bat edo…
Jon Bergararekin landutako ideia bat da azalarena. Bertan trajez jantzitako gizonezko bat agertzen da, oinutsik, Bardeetako desertuan, buzeatzeko betaurrekoak eskuetan dituela. Argazki batean alde batera begira dago eta bestean beste aldera. Diskaren izenburuarekin bat zetorren irudi bat nahi genuen. Gure helburua zen jendearen jakinmina suspertzea, jendeak galdetzea zein zen esanahia, eta uste dugu lortu dugula.

Aurrera begirako agenda…
Ez daukagu kontzertu asko, orain, udaberrian, batzuk izango ditugu, eta ikusiko dugu uda nola datorren.

Kantu berriak sortzen…
Ideia berriak baditugu, baina ez diogu ganoraz heldu gaiari. Orain diskan datozen kantuekin nahi dugu jardun, zuzenekoak nola hobetu… horretan jarri nahi ditugu indarrak.

Eta musikatik bizitzeko asmotan…
Nahiko genuke, baina itxura beltza du honek...

Waterproof **diska Goiti-Behera eta Zubiaran tabernetan dago salgai**

DATOZEN KONTZERTUAK

THE WET BAND + UEK + KRAUSSK

apirilak 23, 22:00
DURANGO, PLATERUENA

apirilak 30, 22:00
ONDARRUA, KAFE ANTZOKIA

maiatzak 8, 22:00
IRUÑEA, INFERNU TABERNA

maiatzak 29, 22:30
MARKINA, UHAGON

ekainak 4, 22:00
GASTEIZ, GAZTETXEA

MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña
EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

Apirilaren 12an eman zen jakitera "*Egunkaria auzia*"ren sententzia eta, auzipetuek diotenez, "Sententzia oso garrantzitsua da".

Hurrengo egunean Martin Ugalde Kultur Parkean egindako agerraldian, bost auzipetuek, abokatuekin egon ondoren, epaiko bi puntu nabarmendu zituzten: "Batetik, epaiak dio ezin dela hedabide bat itxi eta, bestetik, inkomunikazio garaian epaileen aldetik ez zela nahikoa kontrol izan".

Sententziako puntu garrantzitsuak

Deliturik ez. Epaiak dio bost auzipetuek ez zutela deliturik egin eta ez zutela ETArekin harremanik izan.

Itxiera neurria, Konstituzioaren babesik gabea. Egunkaria ixteko erabakiak ez zuela Espainiako Konstituzioaren babesik izan esaten du epaiak eta, adierazpen askatasun eskubidea kontuan hartuta, kazeta itxi aurretik beste aukera batzuk bazeudela. Epaiaren arabera, salbuespen egoerarik egon ezean Konstituzioak ez du ahalbidetzen hedabideak ixtea, "delinkuentzia terrorista" kasuetan izan ezik, ezin baita halako neurririk hartu.

Hedabideak, demokrazian oinarrizko tresna. Hedabideak ez dira, epaileen ustez, "beste edozein enpresa", "gizarte demokratikoan oinarrizkoak eta ezinbestekoak diren eskubideak gauzatzeko tresna direlako".

***Egunkaria*k ez zuen "terrorismoa" goresten.** Euskarazko kazeta hark, epaiaren arabera, "ez zuen mehatxurik egiten, ez zuen delitua probokatzen, ez zuen ekintza terroristen apologia egiten edo ez zituen goresten, ez zuen kalumniarik egiten". ETAri dirurik ere ez ziola bideratu dio.

Adierazpen askatasuna, urratuta. Itxierarekin adierazpen askatasunaren eskubidea urratu zela dio Auzitegi Nazionaleko epaiak. Gainera, "pluralismoaren perspektibatik", Egunkaria euskaraz argitaratu izana ere kontuan hartu behar dela esaten du.

Akusazioak, frogarik gabe, ahulak eta oinarririk gabeak. Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek kartzela zigor eskaerak egin zituzten auzipetuen aurka, bostek ETArekin harremana izan zutelakoan, baina epaimahaiak ez du bost auzipetuen aurkako ezer ikusi. Auzitegiak ebatzi duenez, akusazioek ez zuten "froga zehatzik" eta "susmoen gainean" egin zuten akusazioa. "Euskara eta euskal kulturarekin zerikusia dutenak oro ETAk sustatzen eta kontrolatzen dituela diote [herri akusazioek eta Guardia Zibilak], baina datuen balorazio okerra egitea da hori. Akusazioa ahula da eta oinarririk gabea". *Egunkaria*k ez du harremanik ETArekin, dio sententziak; bestelakorik esatea "espekulazio hutsa da".

Inkomunikazioan kontrolik ez. Auzipetuek atxiloaldiko inkomunikazio garaian tortura eta tratu txarrak jaso izana salatu zutela dio Auzitegi Nazionaleko sententziak –"epaiketan detaileekin kontatu zuten"–, baina epaimahaiak adierazi du ezin duela "juridikoki" esan halakorik gertatu zela. Dena den, atxilotuen "inkomunikazioan nahikoa kontrol judizialik ez zen egon", dio. Guardia Zibilak atzeman zituen.

Absoluzioa gurea da, garaipena Euskal Herriarena eta poza denona

Helegite aukera

Epaiak, ordea, ez du *Egunkaria auzia* bukatutzat eman. Batetik, Dignidad y Justiciak eta AVTk Espainiako Auzitegi Gorenera jotzeko aukera dute, helegitea sartuta.

Bestetik, auzi ekonomikoak zabalik segitzen du eta epaiketaren zain daude zortzi auzipetu. Oraindik ez dute hartarako egunik jarri.

Zortzi auzipetu

Denon indarrez lortu behar dugu zentzurik ez duen bigarren auzia ere ezerezean gera dadin

Joan Mari Torrealdai. 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eskatu dute haren aurka, eta 32,8 milioi euroko isuna.
Iñaki Uria. 26 urte eta 4 hilabete eta 32,8 milioi €.
Txema Auzmendi. 26 urte eta 4 hilabete eta 32,8 milioi €.
Joxe Mari Sors. 26 urte eta 4 hilabete eta 32,8 milioi €.
Ainhoa Albisu. 26 urte eta 4 hilabete eta 32,8 milioi €.
Mikel Sorozabal. 21 urte eta 9 hilabete eta 27,2 milioi €.
Begoña Zubelzu. 17 urte eta 2 hilabete eta 21,6 milioi €.
Fernando Furundarena. 13 urte eta 3 hilabete eta 21,2 milioi €.

Auzi ekonomikoa Gipuzkoako Auzitegira pasatzeko eskaera egingo dute abokatuek, kontuari bukaera noiz eta nola emango zaion ikustear dagoen honetan. Epaituek dioten modura *"ezin da oraindik defentsa jaitsi, erne mantendu beharra daukagu. Erne mantentzeko eskatzen diogu gurekin beti hain eskuzabal eta elkartasun baldintzagabean azaldu den euskal jendarteari"*.

Antzeko egoeran daudenak ere gogoan izan zituzten, *"gogoko genuke, antzeko akusazio oinarria daukaten beste kasuetan ere eragin baikorra izango balu epai honek. Gogoan ditugu bereziki laster batean epaituko dituzten Udalbiltzako auzipetuak. Gogoan ditugu 18/98aren barruan epaitu zituzten eta gaur egun kartzelan dauden EGINeko lagunak. Gogoan ditugu, oro har, antzeko akusaziopean auzipetuta eta jada zigortuta leudekeen guztiak"*.

Zazpi urte luzeetan akusatuen aulkian egon ondoren oraindik auziak itxi gabe jarraitzen du. "Adi" eta "erne" jarraituko dugu, bai horixe!

ZORIONAK!

Une pozgarri hauetan zuekin bat egiten dugu, zuen poza geurea ere badelako. Dena den, ez dugu goardiarik jaitsiko, eta orain arte bezala zuen ondoan izango gaituzue, gure aldizkariaren bidez gure irakurleak informatzen eta…
Besarkada bero bat Kalaputxi egiten dugunon izenean. Eutsi goiari!

apirilaren 25ean, Bilbon, 11:30etan Euskalduna Jauregiko areto nagusian, Eskertza Ekitaldi handia izango da

Pello ULAZIA
PAISAIAREN ERAIKUNTZA

Pello Ulaziak (Mutriku, 1966) Debako Arte Eskolan lehenengo urratsak eman eta bakarkako ikasketaren ondoren, Arte Ederretako ikasketak burutu zituen. Ikasketetan jarraitzeko gogoak bultzatuta, doktoradutza egiten dihardu, eta, beka batek lagunduta, arte ikertzaile lanetan dabil EHUko Leioako kanpuseko Arte Ederretako fakultatean.

Bere txokotik *Paisaiaren eraikuntza* erakusketa eskainiko dio Mutrikuko herriari apirilaren 24tik maiatzaren 2ra arte Zabiel kultur etxeko erakusketa aretoan.

Artearen hizkuntzaz landutako zenbait lan efimeroren emaitzak erakutsiko dira bertan, iazko urtean gogoratutako hiri-gutuna jaso izanaren 800. urteurrenaren ildotik. Gogoeta bultzatu nahi du gure herriaren paisaia nola berreraiki beharko ote genukeen.

Pellok, orain, artearen hizkuntzatik dakarzkigu 800 urte horien joanak sortarazi dizkionak hiru kontzeptu nagusitan laburtuta: Jatorria, paisaia eta identitatea.

Paisaiaren eraikuntza erakusketak, artearen hizkuntzaz baliatuz, Mutrikuko herrian azken urte hauetan ematen ari den paisaia aldaketa prozesuen inguruko hausnarketa sustatzea du helburu. Aldi berean, gureak diren balio estetiko eta identitarioen jabetza bilatzen du, paisaia denon artean berrasmatu ahal izateko.

2009. urtean hiru esku-hartze artistiko burutu ziren herrian, eta haien efimerotasuna kontuan izanik, bere testigantza argazkietan jaso da, jorratutako gaiak jatorria, paisaia eta identitatea izanik.

Jatorria.
Kofraixako moila

Lixiba erabiliz, moilaren itsas ertzean dauden harrizko kubo ale batzuei goroldioa erre eta garbitu dira, hauek lerroak osatzen dituztelarik. Goroldio berdearen artean harrizko lerro ondulatuak gure begirada harrapatzen dute. Ezkutaka jolasean, itsas mareaaren igoera eta jeitsierarekin, lerroak ezkutatu eta agertu egiten dira, lerro ondulatuak itsasoaren lerro zuzenari kontrajarriaz.

Kofraixako moilaren egitura fisikoari eskaini nahi izan zaio begirada, bere materialtasunari eta eraikinaren estetikari. Bestalde, kofraixako moila izango da ziurrenik borondate kolektibo baten ondorioz altxatutako lehen eraikuntza zibila, Kantauri itsasertzeko leku bat “toki” bihurtu zuena, herri bihurtu zuena, eta bere eraikitzaileak, herritar.

Paisaia.
Santabatako hormak

Lur sailen zatiketa eta hesitzearen fenomenoak puzzle pieza galduez osatutako paisaiaren aurrean kokatzen gaitu. Eraldaketa honen aurrean, Santabatan burututako esku-hartzeak paisaiaren patrimonialtasunaren garrantziaz ohartarazi nahi du.

Naturak irenstear daukan aztarna zahar honi, kare zuriaren bitartez, azken bizi dizdira eman nahi izan zaio. Karearen argiak hormak aktibatzen ditu, presentzia eskultoriko bat emanez eta, honekin batera, paisaiaren pertzepzio osoa edukiz. Basoko enbor zaharrak bizi ongarri diren bezala, horma zahar hauek ongarri estetiko bilakatzen dira paisaiaren osotasunean.

Identitatea.
Moila zaharreko zorua

Azken esku-hartze honetan berreskuratzearen edo garbitzearen ekintza eraikitzailea azpimarratu nahi izan da.

Moila zaharreko azken 80 metroko zatia da portuan gelditzen den azken adokinez osatutako zorua. Zintzel eta mailuz, aspaldian pilatzen joan diren hormigoi txaplata handienak kentzea izan da helburua, garbitzearen keinua ekintza artistikotzat hartuz, ekintza eraikitzaile bezala ulertzeko.

Gure iragan hurbilaren bizipenen arrastoak bertan dira, eta hauek isladatzen duten estetikak espazioari ematen dioten identitatea azpimarratu nahi izan da.

MENDI HEGALETAN GORA...

BURUMENDIren eskutik

Burumendi Mendi Taldekoek, beraien zaletasuna zabaltzeko ahaleginean, gure mendietara hurbiltzen gaituzte, gehienetan mendiko paisaiak bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea eskainiz; oraingoan, ordea, apirilaren erdian Kultur Etxeko erakusketa aretoa paisaia ederrez bete zuten, mendia bertara ekarriz. Hurbileko zein urrutiko paisaiak, bai agerikoak bai ezkutukoak, beroak zein hotzak... baina guztiek mendia ardatz.

Nondik sortu da erakusketa?
Burumendi Mendi Taldeko bazkide baten proposamena izan zen. Juntan aztertu eta aurrera egitea erabaki genuen iaz, baina aurten aretoa libratu den arte ezin izan dugu egin.

Horretarako, hainbatetan hainbatekin bezala, Iñigo eta Belen argazkilarien laguntza ezinbestekoa izan dugu jendeak ekarritako materiala bildu eta prestatzeko, eta Argazki Taldeko Amparok utzi dizkigu argazkien euskarriak eta muntaian lagundu. Jendearen erantzuna oso ona izan da, eta kopuruz parte hartzaile asko izan ez bada ere, bildu den materiala oso anitza izan da eta pozik gaude.

Mendia ezagutu eta gozatzeko era desberdinak ageri dira eta horixe nahi genuen lortu, denei lekua emanez: bai goi mendian dabilenari bai mendi apalagoetan dabilenari, umeari nahiz helduari, kobazuloetan arrastaka dabilenari baita mendi maratoietan saltaka dabilenari ere...

Dena dela, hau ez da ekintza bakarra...
Gu urte hasieratik martxan gabiltza! Hilero-hilero mendi irteera bateratuak egiten ditugu ondoko herrietako mendi taldeekin, mendia gaitzat hartuta taldekideen argazkiekin erakusketa hau daukagu orain, Zuhaitz Egunean ere parte hartuko dugu, Arnoko Mendi Lasterketa berehala dator, ibilbideak biltzen dituen liburu bat inprentan daukagu, Tolosatik Ondarrura egiten den *Dina martxa*ri ere tartea egingo diogu aurten gure egutegian, baita Ermuatik Mutrikurako bidea mendiz eta gauez egitearen abenturatxoari ere, horretarako iraileko hilbetea aprobetxatuko dugu. Geroago Mendi Astea ere etorriko da urte bukaera aldera...

Honetaz gain aurten "desbrozadora" txiki bat eskuratu dugu mendi bideen garbiketarako lagungarri, sasi artean gal ez daitezen. Bestalde, aipatu, Arnoko aterpean egindako txukunketa lanei errespetoz erantzun diola jendeak eta pozgarria dela.

> **"Badugu penatxo bat, gure zaletasunera umeak erakartzen asmatu ez dugulako.**

1994 - 2008

1993ko udazkena, Besaiden urte horretan hildako mendizaleen oroiteguna. Gu, mutrikuarrak eta debarrak, Udalaitz mendi kaskoan, hizketa-gaia: mendia, noski. Solasaldiak mendi irteeren antolaketara jotzen du, mendi taldeen behar gorrira: errentagarritasuna, lana egiteko mendizale konprometituen beharra, egutegiak betetzeko ditugun zailtasunak...

Ez dira oraingoak Deba, Mutriku, Ondarru eta Markinako mendizaleen arteko harremanak. Hirurogeiko hamarkadan ez ziren gutxi izan denon artean egindako mendi irteerak. Luze hitzegin ondoren elkarrekin zenbait mendi irteera antolatzea erabakitzen dugu.

Horrela, udazken hartan bertan ekin genion, Araitik hasi Aratz mendia egin eta handik Urbiara ondoren Arantzazun bukatu zen ibilbidearekin eman genion hasiera (...)

Denetik izan dugu hamasei urte hauetan baina, besteak beste, mendi taldeetako mendizaleen arteko ezagutza eta elkartasuna eta mendi taldeetako antolatzaileen arteko elkarlanak dakarren harreman estu, sendo eta beroa utzi digu.

Orain liburu bihurtu nahi izan dugun hamasei urtetako ibilbideen bilduma honek, xume, arin eta sinple itxura badu ere, bost mendi taldeetako antolatzaileontzat zerbait gehiago suposatu du. Hemen ez dituzu ikusiko hainbat bileretako eztabaidak, aukera politenak edo egokienak eskaintzeko. Ez eta bide horiek ikustera joan eta eguraldia edo... dela medio alperrik egindako joan etorriak, kezkak... Azken batean ibilbide bakoitzean ipinitako gogo, ilusio eta lanak, horiek denak eta zaletasunagatik muxutruk egindako lan eskergak ematen dio ibilbide bilduma honi ezineurtuzko balioa.

Liburua oroigarria ezezik mendi irteera politak egiteko aukerak eskainiko dizkiuelakoan gaude.

1994 - 2008 liburuko Sarrera

Orain momentuan eskuartean, ekainaren 6an egingo den Arnoko VI. Mendi Lasterketarako prestaketa lanak darabilzkizue.

Bai. Beharrezkoak diren baimen eta ohar guztiak bideratu ditugu eta eguna zehaztu da. Gure web orrian ***www.burumendi.org*** informazio zabala jaso dezake interesatua dagoen edonork. Ibilbidearen luzera dela eta, GPS bidezko neurketa berriak aldaketatxo bat dakar, izan ere, ibilbideak 22 km dituela esan digu eta ez 24, hortaz hemen zuzenketa. Irteera ordutegiei dagokienez, goizeko 8etan irtengo dira oinezkoak eta 10:15etan korrikalariak, beti bezala.

Aurten, oinezkoetan aurrez izena ematen duenak 8 euro ordaindu beharko ditu, bestela, egunean bertan, 13 euro. Korrikalariek 20 euro ordaindu behar dituzte eta derrigorrez aurrez eman behar dute izena , bakoitzaren asegurua egin ahal izateko. Esan beharrik ez dago jendeak aurrez izenak emateak asko lagunduko ligukeela, antolaketa hobeagoa izan dadin. Momentuz diru aldetik ere ez dakigu zer eta noiz etorriko zaigun eta horren arabera jokatu beharko dugu. Baina gehiagorekin edo gutxiagorekin lasterketa egin egingo dela ziur izan.

Liburuari buruz zerbait gehiago esan nahi?

Bai. Liburua inprentan daukagu eta norbaitek eskuratu nahiko balu oraintxe da une egokia, eskaera beste liburu inprimatuko ditugulako, ez gehiago ez gutxiago. Eskaerak egiteko 636782601 telefono zenbakira dei dezakezue, eta kontuan izan horretarako epea ekainaren 6an bukatuko dela. Liburuaren prezioa 30 eurokoa da eta, normala den moduan, liburua ikusi nahiko luketen guztiek astearte arratsaldeetan Frontoi kaleko Burumendiren lokalera hurbiltzea besterik ez daukate.

Aipatu gabe geratu den zerbait...

Bai, taldean jende berria behar dugula! Jende berria esaterakoan, ideia berriak eta freskotasuna esan nahi dut. Erreleboan testigua pasatzeko ez dago inor... leku guztietan beti betikoak ikusten ditugu, ez da gure taldean bakarrik gertatzen.

Gonbidapena hemen doa: mendia gustuko baduzu, animatu eta hurbildu taldera!

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

Pikua
www.pikua.es
JATETXEA
LANDETXEA
apartamenduak
egunerokо menua
berezitasuna txerri txikia
Laranga auzoa - Tel. 943942222 629105733 luis@pikua.es

MUTRIKUKO ESKOLAREN SORRERA IDAZLUMATIK ORDENAGAILURANTZ (4)



DOCTRINA CRISTIANA

Y CATECISMO

CON UN CONFESSIONARIO

ARTE Y VOCABULARIO BREVES

EN

LENGUA ALLENTIAC

POR EL

PADRE LUIS DE VALDIVIA

de la Compañía de Jesus.

Reimpreso todo á plana y renglon, con una tercera de la vida y obras del autor

POR

JOSE TORIBIO MEDINA

SEVILLA

Imp. de E. RASCO, Bocas Tavera, 1

MDCCCXCIV

Urte luzez jardun izanak ere, ordura arte udalek heziketara zuzendu ohi zuten diru murritzak eta orduko ikasle kopuru urriak bideraezina egiten zuten berariaz horretara zuzendurik egongo zen etxea edo gela edukitzea. Eskuarki, beraz, maisuaren etxea, sakristia, ostatua, udaletxea edo baliagarri izan zitekeen beste edozein leku izan zitekeen biltoki egokia eskola eginbide horretarako. XVIII. mendearen azken aldera hasi ziren lehen eskolak sortzen.

1767ko hasieran udalbatzak Antonio Miguel Azilona alkateari eskolarentzat barne antolaketa prestatzeko eskatu zion, eta hark garaiko eskolaren argibide jakingarriak eskaintzen dizkigun araudia paratu eta aurkeztu zuen otsailaren erdialderako. Ordutegiari zegokionez, adierazi, martxoaren 2tik irailaren 28ra bitartean, goizez zazpietan eta arratsaldez ordu bata eta erdietan ekiten ziotela lanari, bostetan bukaera emanez. Negu aldian, ostera, goizean ordu erdi beranduago sartzen ziren eta arratsaldean ordu erdi lehenago hasi behar izaten zuten lau eta erdietan amaituz. Asteko lan banaketaz, bestalde, aipatu astelehenetan goizez nahiz arratsaldez hogeita hamarna lerroko bi orrialde idatzi behar zituztela eskua lantzen joateko, eta, maisuari erakutsi ostean, elkarri irakurri akatsak zuzentzeko. Larunbatetan nahiz jai bezperetan, beste egunetan bezala ateratzen baziren ere, arratsaldeak, ordu biak arte euskarazko otoitzak ikasteari eskaintzen zioten. Hurrengo orduan, berriz, astean zehar ikasten ibilitako otoitzen gainbegiraketan. Horiek ikasiak zituztenek, alabaina, Aita Asteteren erdarazko kristau ikasbidea ikasten aritzen ziren, beranduago, maisua erdian jarri eta ikasitakoari buruzko galderak egiten zizkielarik. Ostegun arratsaldeak, astean beste festarik izan ezean, jai izaten zuten. Nola Madalen, Kalbario eta San Pedro egunen bezperak hala Santa Ageda, Xabierko San Frantzisko eta San Blas egunak jai zituzten. Orobat, mahats bilketa aldian hiru eguneko jaiak zituzten eta inauterietan zezenketak izanez gero ez zuten klaserik izaten.

Buruz ikasi arte etengabeko errepikapena oinarri zuen irakaskuntza molde hartan, edukiak berenganatzen joateko, ikasleen arteko lehia erabili ohi zuten gogo pizgarri. Idazten ikasten ari zirenak karenka jarrita bi taldetan banatzen zituzten. Ariketak ongien egindakoei hamar puntu edo gehiago ematen zitzaien, makalago aritutakoei, berriz, bi ipurdiko. Idatzitakoetan gaizki idatzitako hamar hizkirengatik ipurdiko bana, hamabostengatik bina, eta abar. Larunbatean, astean puntu gutxien bildutako taldekoak ordu erdi beranduago ateratzen ziren, orrialde erdi bana idatzi behar zutelarik. Horrez gain, hauen mahaiaren aurrean eta makila baten gainean azeri isatsa jartzen zitzaien, hizki handiz "COLA" jartzen zuen idazki baten ondoan, azkenak zirela adierazteko. Han izango zuten isatsa harik eta beste taldea irabazteko gauza ziren arte. Hilean puntu gutxien zutenek, ordu erdi lehenago joan behar zuten eskolara gela garbitzera. Elizkizunetan zintzo egoten ez zirenei, prakak jaitsi eta makila mehe batez sei ipurdiko ematen zizkieten. Hiru eraztun ere erabiltzen zituzten, talde bakoitzak bana, hirugarrena oraindik idazten hasi ez zenarentzat gordeta. Maisuak astean bi aldiz eskatuko zuen eta une hartan jabegoan zuenak makilarekin eskuetan bi aldiz emanda zigorra hartuko zuen, euskaraz hitz itsusiak erabiltzeagatik bezainbeste. Biraoak esateagatik, era berean, sei ipurdiko.

Heziketa arduradunei erreparatuz, bestalde, hogeita zortzi urteko jarduna heriotzak eten zuen arte aritu zen Francisco Atxa botikari jaunak 1784an lagatako tokia, Joseph Antonio Olaetxearen (Berastegi, 1738-1795) eskuetan jarri zuten. Honen irakastaldian Bernardino Ibarra (1764-1831) mutrikuarrak etxean eskola antolatzeko asmoa agertu zion udalari. Udalak ezetz. Olaetxea maisu jauna 1795ean hil zenean, Ibarrari eskaini zioten maisutza, behin behinean lehenbizi eta hurrengo urteko urtarrilean behin betiko, Joseph Alberdiren aurrean gailendu eta gero. Jakinarazi zioten sei hilabeteren buruan ezinbestekoa zuela gaitasun agiria erdiestea.

XVIII. eta XIX. mendean ongi aurrera egin arte, Mutrikun ez ezik beste hainbat udalerritan ere izan zen herri eskolez gainera baserri auzoetan haurrei nahiz helduei irakurtzen, idazten zein kristau ikasbidea irakasten aritzen zenik. Oso prestaketa murritza izan ohi zuten eta gaixotasun edo elbarritasunen batengatik ezinduak nahiz baselizetako serorak ziren sos batzuen edo janarien truke horretara emanak bizi zirenak. Manuel Antonio Alustiza (Zerain, 1789-1853) dugu horietakoa, eta 1818az geroztik gure baserrietan zehar aritu zen, hurrengo urtean ikasleak Mijoako Ilunben biltzen hasita, "baserrietakoak ez ezik kaletar andana ere biltzen zaizkidalarik" 1820ko maiatzean idatzi zion udalari, "herrian aritu nahiko nukeelarik ere, etxe egokiak urri direnez, eskabidea egiten diot pilotalekua horretarako erabil ahal dezadan". Baiezkoa eman zioten errentarik ordaindu beharrik gabe.

Frantziako iraultzaren ondotik, ordura arteko erregimen zaharraren mundu ikuskera aldaraziz joan zen. XIX. mendearen hastapenetan liberalismoa hedatuz joan zen, ezinbestean, gizartearen gurariei erantzun nahian. Horretarako, ezin garrantzitsuagoa zen eskolaren betebeharra berraztertzea ere ekarri zuen ikuskera berri hark. 1820ko urrian, hiruko liberala indarrean zen garaian (1820-1823), Manuel Maria Etxebarriak, (Mutriku, 1777-?) udalari idazkia zuzendu zion Joseph Lancasterren irakasbidean oinarrituriko "elkarren arteko irakaspen" eskola berria sortu nahiaren berri emanez. Bertan, liberal porrokatu honek, pentsaera bereko ziren udal agintariei ordura arteko eskolaren gabeziak aipatzeaz batera, proposaturiko eskolaren onurak suharki goraipatzeaz gain, bertako mahai-aulkien antolaketa, gela banaketa, azterketak, ageriko ariketak, arautegia, eta abar bere esku uzteko adierazi zien. Baiezkoa jasota, bi hilabetera maisu izendaturik, lansaria zein ikastetxe berriaren gastuak ordaindu ahal izateko, kanpoko ardoari eta pattarrari laurdeneko zerga ezartzeko baimena eman zion Gipuzkoako Aldundiak. Garai horretan, beraz, bi eskola ari ziren herrian, Bernardino Ibarrak zortzi urtetik beherakoak zituen eskola zaharra, eta zortzi urtetik gorakoak arituko ziren berria. Gaur egun, Hogar del marinero elkartea nahiz Anaiarte biltokia hartzen dituen Beheko plazako eraikina prestatu zuten eskola berriaren nahiz alondegi zerbitzuak eskaintzeko.

> **"1820an "elkarren arteko irakaspen" eskola sortu nahi izan zueten herrian**

Eskolaren inaugurazio ekitaldia 1821eko urtarrilaren 31n izan zen, eta bertan agintarien aurrean eman zituen hezkuntza molde berri horren nondik norakoak, hauek pozarren aditu zutelarik. Halaber, urte hartako uztailaren 19an jendaurreko azterketak nahiz konstituzioaren aldeko oroitarria jartzea ekitaldi berean uztartu zituzten. Ez zen, hala ere, ikuspegi politiko ezberdinen arteko harremana liskarrik gabekoa, eta horrela, 1822ko abuztuaren 4an, eguerdi aldera, talde integrista apostolikoetako bost gizon armatu herriratu eta Juan Jose Azilona alkatea atxilotu nahi izan zuten. Ezinezkoa izan zitzaienez, honen etxeari su eman nahi izan zioten, hiru mila erreal eman behar izan zizkietelarik ekintza ez burutzeko. Nolanahi ere, gaueko hamarrak aldera itsasoz itzuli ziren, eta Manuel Maria Etxebarria atzemanik eraman zuten. Urte horretako urriaren 17an, Etxebarria maisuak gutun batez udalari herriko eskola uzteko asmoa agertu zion, Donostiako eskolaren ardura hartu zuelako. 1823ko apirilean, haatik, erregimen zaharra berrezartzean, Donostiatik ihes egin behar izan zuen, Bilbora. Han, eskola zabaltzen ahalegindu bazen ere, udalak itxiarazi egin zion, eta bi eguneko epea eman hiritik alde egiteko, hala ez egitekoan, legearen eskuetan jarria izango zela mehatxatuta.

Gurean eraturiko Gipuzkoako lehen eskola lancastertarra, besteak bezala, ezerezean geratu zen.

JOSE ANGEL LIZARDI

INFORMAZIO ITURRIAK
• Mutrikuko Udal Artxibategia
• Gipuzkoako Elizbarrutiko artxibategia
• Jesus de Benito Pascual: La Enseñanza de primeras letra sen Gipuzkoa (1800-1825).

ZORION AGURRAK.....

GAIZKA eta JOSE LUIS

Apirilaren 11n aitxona Jose Luisek eta Gaizkak urtebetetzea ospatuko dute. Zorionak bikote, oso ondo pasatu zuen urte berria.

XUA eta AINARA

Zorionak etxeko bi india txikientzat, maiatzaren 9an Xuak 4 urte handi egingo dituelako eta maiatzaren 16an Ainarak jaunartzea egingo duelako.

UNAI

Bat, bi, hiru, lau... eta propiña... bost! Zorionak Unai, Irea, aita eta amaren partez.

IZASKUN eta LEYRE

Zorionak bioi, apirilaren 6an eta 23an urteak bete dituzuelako. Muxu handi bat bioi etxekoen partez.

IZEL

Apirilaren 16an gure morenitak urtebete egin du eta
ZORIONAK berari! etxeko danon partez.

AINHOA

Zorionak etxeko txikiari, apirilaren 24ean lehenengo urtetxoa betetzen duelako. Muxu handi bat etxeko denon partez, eta bereziki, Amaiaren partez.

MAIDER

Hamar urte! Ailegatu zara bi numerueta! Txokolatadan, kameluak ere doble!
Zorionak gure Maiderri!

IRENE, MIKEL eta JON

Apirileko gure hirukoteari zorion bana, bakoitzari berea. 10, 7 eta 4 belarri teinkada etxeko guztion partez. Maitte zaituztegu!!!

JON

Zorionak gure etxeko futbolari onenari apirilaren 23an 4 urte bete-tzen dituzulako. Muxu handi bana etxeko denon partez, bereziki Iker eta Julenen partez.

IZEI eta JUNE

Zorionak bikote! Urte berri bana heldu zaizuelako, sei muxu eta bi muxu… zortzi muxu biontzat, txokolatezkoak, marrubizkoak… maitasunezkoak..

ENEKO

Urri-urri bihurri hala esaten didate ZORIONAK ENEKO zure hirugarren urtebetetzea izan delako apirilaren 19an.

Zer da? Non dago?

Argazki Zaharrak

Astilleroko moillan arrantza ateratzen, 1968 urtian

Kanpeonato lokala, 1955 urte bueltan

Tente: Juan Basterretxea, Jose Juan Uranga, Jose Ignacio Urkiri, Kepa Lizardi, Jose Martija, Jose Oianguren eta Iñaki Azpiazu.

Kukulumutxu: Gonzalo Calvo, Gregorio Alberdi, Jose Mari Ruiz, Andoni Urreisti eta Jose Luis Basurko.

Martin Ruiz Larreinak utzitxako argazkixak

2010 urteko mendi irteerak

maiatzak 23
Tobalina-Umion-Frias (Artibai MT)
ekainak 20
Orbaizeta-Urkulu-Donibane Garazi (Burdin Kurutz)
ekainak 26
Tolosa-Ondarru mendi martxa
uztailak 2-3-4
Saint Lary
irailak 12
Mendiola-Kurutzeberri-Degurixa-Araotz (Burumendi)
irailak 25-26, gaueko martxa
Einbar-Urko-Urkaregi-Arnoate-Mutriku
urriak 24
Candina mendilerroa (Aurrera MT)
azaroak 7
Gorbeia (Lumentza)
abenduak 12
Mutrikun zehar zeharkaldia (Burumendi M.E.)

Mutriku, Ondarroa, Deba eta Lekeitioko mendi elkarteak

UDABERRIKO EKITALDIAK

LIBURUAREN ASTEA
apirilak 23, ostirala, 17,00etan, Zabielen
Bakarrizketa antzeztua, haurrentzat
BABEL: munduko ipuinak, munduko kulturak.
apirilak 25, domeka, 19:00etan, Zabielen
Han izanik Hona naiz
Joseba Sarrionaindiaren poemak

IPUIN SORKUNTZA IKASTAROA
maiatzaren 8an, 15ean eta 22an
16 urtetik aurrerakoentzat.
Informazio gehiago Turismo Bulegoan

ASTE MUSIKALA
maiatzaren 19tik 23ra
Musika Eskolak antolatua

TXANTXANGORRIK 10 URTE
maiatzak 8, zapatua
10:30etan umeentzako jolasak
13:00etan begiraleen topaketa

ESKOLEN ARTEKO ANTZERKI JARDUNALDIAK
Zabiel Kultur Etxeko ganbaran
maiatzak 7, barixakua, 22:00etan
Bihurriak taldea, Zein gehixo taldea eta Beti aurrera taldeak
maiatzak 8, zapatua, 19:00etan
Bitxiak, Maitagarri Iratxoak eta Onenak

ESTROPADAK- TRAINERILAK
maiatzaren 22an eta 23an, portuan

ERAKUSKETAK
apirilaren 24tik maiatzaren 2ra
Paisaiaren eraikuntza, Pello Ulazia
maiatzaren 3tik 16ra:
Bakearen Lagunak arte-lan erakusketa
maiatzaren 17tik 30era
Argazki erakusketa, argazki taldeak antolatua

ZINE FORUM-en hurrengo emanaldiak

apirilak 23 ..... Laburbira (Film laburren zirkuitoa)
maiatzak 7 ..... Los lunes al sol (Fernando León de Aranoa)
maiatzak 21 ..... Matrix (Wachowski anaiak)

zabiel kultur etxean · gaueko 22:30etan · sarrera doan

ODOLA EMATEKO EGUNAK

...~~OTSAILAK 19~~.....APIRILAK 23.....EKAINAK 18...
...ABUZTUAK 13.....URRIAK 22.....ABENDUAK 17...
arratsaldeko 6etatik aurrera, lehengo anbulatorioan

errenta aitorpena? guk euskaraz, nola bestela?

lea artibai
ikastetxea

Etorkizuna Eraikiz
formazioa.ustapenalaneratzea.lorketa

ate irekiak

apirilak 16 arratsaldeko 6etan
apirilak 24 goizeko 10etan

hitzaldiak

MUTRIKU: maiatzak 4 6etan Zabiel Kultur etxean
ONDARROA: maiatzak 5 6etan Guzur etxen
LEKEITION: maiatzak 6 6etan Kultur etxean

lea artibai

Xemein etorbidea, 19 - 48270 MARKINA-XEMEIN
Tfna. 94 616 90 02 http://batxilergoa.leartik.com

deskontuak
altzari guztietan

erakusketa

akilape

Mijoa Industrialdea z/g MUTRIKU (GIPUZKOA)
Tfnoa: 943 60 43 34 _ 943 60 43 08 www. akilape.com

MUTRIKUKO HAURRESKOLA

MATRIKULA KANPAINA
maiatzaren 3tik 14ra

> Haurreskola Publikoa 0-2 urteko haurrentzat
> 11 hilabetetan 11 orduz zabalik
> Hileko kuotak ordaintzeko diru laguntzak (bekak)
> Plaza kopuru mugatua

informazio gehiago, telefonoz deituta (edozein ordutan)

edo Haurreskolara bertara etorrita (12:30-16:00 ordutegian)

> Telefonoa: 943 60 41 19
> E-maila: mutriku.mutriku@haurreskolak.net
(Goizeko Izarra Ikastolaren barruan gaude)

Haurreskolak

MUTRIKUKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA